

# azperran zer?

udal aldizkaria

193. zenbakia





## TELEFONO INTERESGARRIAK

|                                |              |
|--------------------------------|--------------|
| Zentralita                     | 943 15 72 00 |
| Alkatetza                      | 943 15 71 85 |
| Idazkaritza                    | 943 15 71 98 |
| Kontuhartzailetza              | 943 15 71 89 |
| Hirigintza                     | 943 15 71 91 |
| Gizarte Zerbitzuak             | 943 15 71 92 |
| Kultura                        | 943 15 70 68 |
| Komunikazioa                   | 943 15 79 82 |
| Kirolak                        | 943 15 00 95 |
| Parekidetasuna                 | 943 15 79 28 |
| Emakumeen Txokoa:              | 943 15 70 55 |
| Iturritxiki Ludoteka           | 943 15 11 79 |
| Txiki-Txoko Ludoteka           | 943 15 05 16 |
| Zapo Txoko                     | 943 15 71 61 |
| Gazte Informazio Bulegoa (GIB) | 943 15 71 60 |
| Eguneko Zentroa                | 943 15 74 96 |
| Liburutegia                    | 943 15 71 95 |
| Udaltzainak                    | 943 15 13 13 |
| Suhiltzaileak                  | 112          |
| Igerilekua                     | 943 81 41 21 |
| Kiroldegia                     | 943 81 30 69 |
| Izarraitz Pilotalekua          | 943 81 25 63 |
| Euskara Patronatua             | 943 81 45 18 |
| Udal Euskaltegia               | 943 81 19 47 |
| Lapatx Zabortegia              | 943 15 18 75 |



## BOTIKA TXANDAK

### ALBERDI

Jose de Artetxe 6 • Tel.: 943 81 59 74  
Otsailak 5, 12, 19 eta 26

### ARANBURU

Plaza Nagusia - Goiko kalea 2,  
Tel.: 943 81 13 50  
Otsailak 8, 15, 20, 21 eta 22

### ARTETXE-BASTIDA

Urbitate auzoa 3 • Tel.: 943 81 19 49  
Otsailak 2, 9, 16, 23, 27 eta 28

### ARRIETA

Enparan 29 • Tel.: 943 81 12 74  
Otsailak 4, 6, 7, 11, 18 eta 25

### JACOME

Garmendi 21 • Tel.: 943 08 02 58  
Otsailak 3, 10, 13, 14, 17 eta 24

## ALE HONETAN ZER?

|                             |    |
|-----------------------------|----|
| Aurrekontuak.....           | 3  |
| Inbertsioak.....            | 6  |
| Udal laguntzak.....         | 8  |
| Etxe tutelatuak.....        | 12 |
| Alokairurako laguntzak..... | 14 |

Argitaratzailea: Azpeitiko Udala  
Egilea: Prentsa bulegoa  
Argazkiak: Azpeitiko Udala.  
Diseinua: EREGI, Euskara eta Komunikazioa  
Maketazioa eta testuak:  
Bidera Zerbitzuak (Berria Taldea)

Ale kopurua: 7.000  
L.G: SS - 1148/91

**AZPEITITIK KANPO BIZI ARREN, ZURE ETXEAN  
JASO DEZAKEZU AZPEITIAN ZER? ALDIZKARI  
HAU POSTA BIDEZ. EGIN ESKARIA 943 15 71 85  
(ALKATETZA) TELEFONOAN.**

## AZPEITIA EZAGUTZEN



**INAXI ETA PATXI PERTSONAIEN BIDEZ,  
AZPEITIKO HISTORIA EZAGUTZEKO BALIOKO  
DIGUTEN HERRIKO DATU ESANGURATSUAK  
IKASTEKO AUKERA IZANGO DUGU  
AURRERANTZEAN TARTE HONETAN. EZAGUTU  
AZPEITIA, BERE HISTORIA ETA ONDAREA!**



Gizakiari, lurra lantzen zuenetik, beharrezkoa egiten zaio aleak ehotzea zerealak lortu eta elikatu ahal izateko. Prozesu hau hasieran eskuz egiten zuten zereal alea bi harriren artean txikituz.

Hasieran errotak gizakiak nahiz abereak mugituak izaten ziren, “odol errota” izenez ezagunak direnak. Milaka errota erabiltzen ziren Euskal Herrian.

Gehienak “rodezn” sistema (gurpil horizontala) erabiltzen zuten eta batetik seira bitarteko errotarri kopurua eduki ahal zuten. Rodezn sistema uholdeak saihesteko errotak errekatik kanpora eraiki izan dira. Ura errekatik jasotzen zuten, urmaelean moteldu eta kanaletik errotaraino garraiatuz.

Kanalak ura eramaten du aldapatik poliki errotaren zatirik gorenera, presa batean jasoaz. Bi edo hiru metroko sakonera duen presa honek, azpialdean daukan irteera estutik (uragea) ateratzen den ur-jauziaren presioak eragiten dio mugimendua aspak jotzen dituenen. Aspa horiek errudea mugitzen dute, eta ardatzari mugimendua sortuz gaineko errotarria biraka jarri. Azpeitia inguruetan oraindik ere badira martxan jarraitzen duten errotak.

## AURREKONTUAK



## GIZARTE BABESA ETA EKONOMIA SUSTATZEKO 2021. URTEKO AURREKONTUAK INDARREAN DIRA

Urtea hastearekin bat indarrean dira 2021. urteko aurrekontuak. Iazko abenduan, aho batez, onartu zen 19.482. 829€ko udal aurrekontua. Nagore Alkorta alkateak aurrekontuak osatzerakoan azpeitiarrak izan dituztela gogoan adierazi zuen, eta bereziki, “Covid-19aren ondorioz bizitza asko konplikatu” zaien horiek. Egoera zailetan “diru publikoa eta udalaren baliabideak gehien behar dituzten herritarren zerbitzura” jartzeko konpromisoa azpimarratu zuen.

Ez ohiko egoera batean, eta ez ohiko egoera bati erantzuteko 2021. urteko aurrekontuak onartu zituen Azpeitiko Udalak abenduaren 1eko ohiko hileko plenoan. Aho batez onartu zuten 19.482. 829€ko udal aurrekontua eta 29.836.874€-ko aurrekontu bateratua; aurren, Gipuzkoako Fondo Foralaren ekarpenaren beherakada dela-eta, 763.000€ gutxiagoko aurrekontua izango du.

Aurrekontuak osatzerakoan, ezinbestekoa izan da lehentasunak ongi izan ditu, hasieratik, aurrekontuen bi ardatz nagusiak: gizarte beharrei erantzutea eta ekonomia sustatzea. Bi norabidetan ari da lanean azken hilabete luzeetan eta lan egiteko modu horri eutsiko dio 2021. urtean ere: “Argi dago azpeitiarren momentuko beharrei erantzutea dagokigula pandemiaren baitan

sortutako egoerei aurre egiteko; baina, aldi berean, etorkizuneko Azpeitia eraikitzeke prespektiba ezin dugu galdu”, zehaztu du Nagore Alkorta alkateak. Hori aintzat hartuta osatu dituzte datorren urteko aurrekontuak, eta “momentuko eta etorkizuneko beharrik uztartzeke” helburuarekin ari dira *Azpeitia 2030 Plan Estrategikoa* osatzen.

“Azpeitiarren arazoak udalaren arazoak” direla azpimarratu du Alkorta: “Aurrekontuak inor atzean utzi gabe krisi honetatik irteteko eta denontzako Azpeitia eraikitzen jarraitzeko” onartu dituztela gaineratu du. Aurrekontu “on eta anbizio-tsua” egin dituztela uste du.

Leire Goenaga Ogasun zinegotziak ere aurrekontuetarako gastu eta sarreraren aurreikuspena egitea ohi baina konplikatuagoa izan dela nabarmendu du: “Bizi dugun egoera ezegonkorrean zaila da sarreraren aurreikuspena egitea. Gipuzkoako

Fondo Foraletik %5 gutxiago jasoko dugula aurreikusia dugu, eta murrizketa hori izan dugu aintzat. Sarrera gutxiago izango ditugu eta osasun krisi eta krisi ekonomikoaren eraginez beharra handiagoa da”.

Aurrontuak batzorde guztietan lan-tzeaz gain, herriko eragileek eta herriarrek ere izan dute ekarpenak egiteko aukera eta eskaera guztiei erantzungo dien aurrekontuak osatzea izan dela helburua adierazi du. Gastuak murrizterakoan partida orokorrak “ajustatu” dira eta hirigintzako inbertsioen atala jaitsi behar izan dira: “Behar sozialei erantzuteko unea da eta ez obra handiak egitekoa”, azpimarratu du.

GIZARTE BABESA, INOR ATZEAN EZ UZTEKO

Departamenduetako xehetasunak nabarmentzean, azken urteotan Gizarte Zerbitzuen bidez behar sozialei erantzuteko egindako aurrerapausoa nabarmendu du. “Gizarte beharrei erantzuteko diru publikoa indartu dugu, alde batetik, herritarren beharrei erantzutea lehentasuna delako, baina baita justizia sozialean sinesten dugulako ere”.

Gizarte Zerbitzuen arloa azken urteetan urtez urte indartzen joan den urtea izan da. 2021Ean 2.130.000€ aurrekontua izango du eta hiru lan ildo azpimarratu ditu: adinekoentzako zerbitzuak, diru laguntza lerroak eta 2021ean egitekoak diren pobreziaren azterketa.

Bilakaera demografikoaren eraginez, biztanleria gero eta zaharragoa da eta arreta berezia jartzen du Udalak adinekoen ongizatean eta zaintzan. Horren adibide da, duela hilabete inguru Gipuzkoako Foru Aldundiarekin gizarte zerbitzuen eta batez ere adinekoen zerbitzu eta beharrak azter-

tzeko sinatutako lankidetzaz hitzarmena. Bide horretan, etxeko zerbitzua aipatu du Goenagak: “Etxeko zerbitzua 130 familiari eskaintzen diegu gaur egun. Udalaren eskumena da zerbitzu hori eskaintzea eta urtez urte gero eta herritar gehiagori ematen zaio”. Zerbitzu horretaz gain, ordea, mendekotasunaren prebentzioan egiten den inbertsioa ere aipatu du. Diru laguntzei dagokienez, berriz, Gizarte Larrialdietarako laguntzen garrantzia azpimarratu du. Eusko Jaurlaritzaren betebeharra da egoera ekonomiko larrian dauden herritarrei diru laguntzak bideratzea, baina bideratzen duten diruarekin ez da eskaeren erdiei erantzuteko ere iristen: “Udalak duela hainbat urtetatik Udal laguntzak ematen ditu, beharra duen herritarrik atzean ez uzteko”. 505.000tik gora bideratu diratu dira horretarako 2020an eta 324 familiak jaso dute laguntza hori.

“GIZARTE BEHARREI ERANTZUTEKO DIRU PUBLIKOA INDARTU DUGU. ALDE BATETIK, HERRITARREN BEHARREI ERANTZUTEA LEHENTASUNA DELAKO, BAINA BAITA JUSTIZIA SOZIALEAN SINESTEN DUGULAKO ERE”

2021ean pobreziaren azterketa egingo dela ere aurreratu du: “Momentu ona izan daiteke herriko errealitatea ezagutzeko. Datu objetiboak izan eta azken urteotan egindako ibilbidean urratsak egiten jarraitu behar dugun edo egokitu egin behar dugun jakingo dugu horrela”.

EKONOMIA SUSTATZEKO 450.000€

2008ko krisitik atera eta egoera ekonomikoari bultzada emateko baliabide publiko garrantzitsuak izan ziren sustapen ekonomikorako laguntzak: “Laguntza horiek ematen dituzte bere fruituak”, adierazi du. 2020an, osasun krisiak krisi ekonomikoa ere ekarri zuen, eta bizi dugun egoera ezegonkorrean zaila da zer gertatuko den datozen hilabeteotan jakitea. Ez egonkortasunaren adibide, herriko langabezia tasa da; urtarrian, pandemia hasi aurretik, %8,4koa zen, abuztuan goia jo zuen eta %10,7koa izan zen, eta abenduko datuen arabera %8,8koa zen; zehazki 636 azpeitiar zeuden langabezian, eta 256 pertsona ERTean; horietatik 205 zerbitzuetako langileak.

“Pandemian ez ohiko neurriak hartu ditugu, eta Sustapen Ekonomikorako Plan Integralaren baitan, 475.000€ bideratu genituen sustapen ekonomikora”, zehaztu du. 2020ko aurrekontuetan 250.000€ aurreikusita zeuden, eta partida handitu zuten, egoerak horrela eskatzen zuelako. 2020ko sustapen ekonomikorako laguntzetarako herriko eragile ekonomikoen 101 proiektu lagundu zituen. Eskaerak ikusita, 450.000€ jarri dira 2021erako.

Ekonomiari dagokionez, lur industrialen garapena da udalaren beste lan lerroetako bat. Larringo lur industrialak garatzeko hitzarmena sinatu berri du Udalak Sprilurrekin eta Landetako azterketa ere abiatu du. Bide horretan, 50.000€ko diru partida jarri du lanean jarraitzeko: “Kalitatezko industriak sortzen ditu kalitatezko lanpostuak, eta kalitatezko industria sortzeko edo erakartzeko erraztasunak jarriko ditugu”, gaineratu du.



2021EKO AURREKONTUAK, ZENBAKITAN

|                                                 |                |
|-------------------------------------------------|----------------|
| Azpeitiko Udalaren 2021eko aurrekontu bateratua | 29.836.874,02€ |
| Udalaren aurrekontu propioa                     | 19.482.829,02€ |
| Euskara Patronatua                              | 736.030,16€    |
| Udal Kirol Patronatua                           | 1.466.654,02€  |
| Azpeitia Berritzen, SA                          | 9.512.545€     |
| Aurrekontua, sailez sail                        |                |
| Ogasuna eta kontuak                             | 396.895€       |
| Hirigintza eta ingurumena                       | 1.345.000€     |
| Hezkuntza eta euskara                           | 1.047.819€     |
| Kultura eta gazteria                            | 1.097.400€     |
| Kirola                                          | 1.196.654€     |
| Gizarte zerbitzuak                              | 2.129.976€     |
| Langileria eta antolakuntza                     | 6.136.764€     |
| Festak                                          | 279.000€       |
| Zerbitzu orokorrak                              | 4.028.340€     |
| Alkatetza                                       | 296.000€       |
| Ekonomia, enplegua eta formazioa                | 1.085.978€     |
| Parekidetasuna                                  | 192.000€       |
| Baserriak                                       | 251.000€       |
| GUZTIRA                                         | 19.482.829€    |



**“HERRITARREN  
MUGIKORTASUNA ETA  
IRISGARITASUNA  
HOBETUKO DIREN PROIEKTUAK  
LEHENETSI DIRA 2021EKO  
AURREKONTUETAN”**

## BIZI KALITATEA HOBETZEKO INBERTSIOAK

Inbertsioetako aurrekontuak izan du beherakada nagusiaena, eta azpeitiarrentzat herri “eroso eta irisgarria” izateko helburuarekin egingo dira 2021. urteko proiektuak. Herriko bi eremuren irisgarritasuna eta mugikortasuna hobetzeko obrak egitea aurreikusten da zehazki. Alde batetik, anbulatorio

atzeko zubiaren bigarren fasea eta Matxinada kalea hobetzeko obrak egitea aurreikusten da. Obra horrekin eta Aranatik Arana-goikora igotzeko jarriko den igogailuarekin, herriko eremu handi bateko irisgarritasuna hobetu eta herritar ugariren bizi kalitatean eragingo da.

Bestetik, Garmendi auzoko 9 eta 13 etxeatarien ingurua eraberrituko da; eta bidegorrirako sarrera egokituko da.

Bi obra horiez gain, kirol azpiegituretako irisgarritasuna hobetzeko azterketa egingo da eta Soreasuko sormen guneko musikaren eremuari ere eutsiko zaio 2021. urtean.



### MATXINADA KALEKO IRISGARITASUNA

Anbulatorio ondoko zubia irisgarri egin eta inguruan mugikortasuna hobetzeko obrak abian jarri zituen Azpeitiko Udalak iaz. Lehen faseko obrak bukatuta 2021. urtean zubiaren Matxinada kalerako aldea eta kalea bera irisgarriago egiteko proiektua gauzatuko du. Hala, urteetako herritarren hainbat eskariri erantzunez irisgarritasun arazoei irtenbidea emango zaie.

Inguruaren uholde arriskua dela eta, Urakek ez du zubian aldaketak egiteko baimentik ematen; beraz, oinarria aldatu gabe, inguruaren urbanizazioa moldatuz, malda leundu da. Lehen fasean, anbulatorio aldeko zatiko obrak 97.596€ko aurrekontua izan du. Bigarren fasea 2021ean egingo da.



### ARANA ETA ARANAGOIKOAKO IGOGAILUA

Arana eta Aranagoikoa lotuko dituen igogailuaren proiektua gauzatuko da aurtan. Igogailua Aranagoikoako maldaren hasieran kokatuko da eta bi solairu izango ditu. Bigarren solairuan, pasarela baten bidez auzoaren goikalderako pasoa egingo da. Ondoren, azken etxeetarako pasoa egokituko da, irisgarri izateko.

400.000€ inguruko aurrekontua du proiektuak, eta igogailua jarri eta anbulatorio atzeko zubiaren irisgarritasuna hobetzearekin batera, herriko eremu handi bateko herritarren bizi kalitatea hobetuko dela aurreikusten du udalak.



### GARMENDIKO HOBEKUNTZAK

Akupuntura urbanistikoaren baitan, Garmendi 9 eta 13 etxeatarien arteko eremua berrituko du Udalak. Eremua berritzearekin batera, herri barruko bidegorrirako sarbidea egokituko da. Hala, bizikletek zein oinezkoek bidegorrirako duten pasabidea irisgarriagoa eta seguruagoa bihurtuko da.

# EGOERA EKONOMIKO LARRIAN DAUDEN HERRITARRENTZAT 382.000€KO LAGUNTZAK, ABIAN

Urgentziaz onartu ditu Udalak 2021. urteko udal laguntzak. Laguntza horren bidez 382.000€ bidaratuko ditu herrian behar gehien dituztenentzat. Aurtengo deialdian, gainera, norbere jarduera ekonomikoari lotutako higiezin edo lokalaren hainbat gastu ere lagunduko dira diruz, eta pentsio baxua duten pertsonentzako laguntza osagarria zabaldu egin da.

Iazko martxotik indarrean den osasun alarma egoerak, eragin zuzena izan du herritarren ekonomian. Ostalaritzan edota tokiko merkataritzan lan egiten duten herritarrek bizi duten egoera kritikoa izan daiteke nabarmenena, baina beste hainbat sekto-

reetako langileak ere kaltetu zuzenak dira. Azken datuen arabera 2020. urtearen bukeran % 8,8koa zen herritako langabezia tasa; zehazki 636 azpeitiar zeuden langabezia, eta 256 pertsona daude ERTEan; horietatik 205 zerbitzuetako langileak.

2021aren hastearekin bat, urgentziaz gizarte larrialdietarako diru laguntza lerroa jarri du abian udalak: "Laguntza horien helburua da, egoera ekonomiko larrienean dauden azpeitiarrak babestea. Laguntza honek berdin balioko du langabezia, kontratupeko lanean edota autonomo moduan lan egiten duten herritarrentzat. Egoera berezi honetan egon daitezkeen beharrei erantzuteko egokitzapenak egin ditugu. Eta, beraz, bete beharreko baldintzak dituzten azpeitiar guztiek dute udal laguntzak jasotzeko eskubidea eta aukera", azaldu du Nagore Alkorta alkateak.

382.000 euroko dirulaguntza lerroa da, baina, behar izatera, diru gehiago jartzeko konpromisoa du: "Azpeitiako udalarentzat lehentasun osoa du egoera ekonomiko larrienean egon daitezkeen azpeitiarrak babestea.



Eta horretarako diru gehiago behar balitz kreditu aldaketa bitartez txertatuko genuke", gaineratu du.

## OKERREN PASATZEN ARI DIRENENTZAT, LAGUNTZAK

Azpeitiko Udala "ahalegin berezia" egiten ari dela sortu diren behar berriei erantzuteko azpimarratu nahi izan du Leire Goenaga Gizarte Zerbitzuetako batzordeburuak. Horren isla, datu bat: iaz, gizarte larrialdieterako laguntzen eta udal laguntzen bidez 500.000€tik gora bideratu zituen, herriar behar gehien duten familietera; hortik %75a jarri du Udalak eta %25a Eusko Jaurlaritzak.

Aurtengorako, gizarte larrialdietarako eta udal laguntzetarako 382.000€ jaso dira aurrekontuetan: "Udaleko sarrerak jaitsi badira ere partida hori igo egin dugu, egoerak horrela eskatzen duelako. Herritarren diru sarrerak jaitsi egin dira, eta lehen egoera zailean zeudenak orain okerrago daude. Langabe gelditu dire-

lako herriko gazte eta familia asko edo ERTEan daudelako hileroko diru sarreretan beherakada nabarmena jasan dutelako".

Oinarrizko gastuetan elikagai, higie-ne, osasun gastu eta hainbat gastu pertsonal laguntzen dira. Ohiko etxebizitzako gastuetan, berriz, alokairua edo mailegu gastuak laguntzeaz gain ura, gasa, argindarra, aseguruia, IBIA, zaborra... Bezalako kontzeptuetarako laguntza jasotzen da.

## BI BERRIKUNTZA NAGUSI UDAL LAGUNTZETAN

Orain arteko ohiko gastuez gain, bi aldaketa nagusi jaso dira aurtengo deialdian. Alde batetik, norbere jarduera ekonomikoari lotutako higiezin edo lokalaren hainbat gastu (alokairua, mailegua edo hornikuntza gastuak) lagunduko dira. "Egoera honetan dauden familientzat izugarrizko zama da ohiko etxebizitzako gastuez gain bere jarduera ekonomiko burutzen duen lokalaren gastuak

"EGOERA EKONOMIKO LARRIENEAN DAUDEN AZPEITIARRAK BABESTEA. LAGUNTZA HONEK BERDIN BALIO DU LANGABEZIAN, KONTRATUPEKO LANEAN EDOTA AUTONOMO MODUAN LAN EGITEN DUTEN HERRITARRENTZAT"

ordaintzea eta gastu horiei aurre egiteko laguntza jaso ahal izango dute", zehaztu du Goenagak.

Bestetik, Udal Laguntzen bidez azken urteotan pentsio baxua duten pertsonentzako laguntza osagarria zabaldu egingo da, eta pentsiodun desberdinei eskainiko zaie. "Laguntza urtez urte egokitzen doa, iaz alargunei zabaldu zitzaizen laguntza hori jasotzeko aukera, eta, aurtun, desgaitasun desberdinengatik ezintasun pentsioa dutenek ere jaso ahal izango dute", zehaztu du.

Laguntza honen bidez, adin txikikoen eskolaz kanpoko jardueretako bekak ere bideratuko ditu udalak

UDAL LAGUNTZETAKO BALDINTZAK

Betebeharreko baldintza orokorrak

- Azpeitian errolatuta egotea
- 18 urte izatea
- Gutxienez eskabidea aurkeztu baino urtebete lehenago sortutako bizikidetza unitatea izatea

Baldintza ekonomikoak

| Kide kopurua | Diru-sarreraren muga hileko | Ondare osoaren muga |
|--------------|-----------------------------|---------------------|
| 1            | 1.139,23€                   | 36.449,76€          |
| 2            | 1.462,66€                   | 46.805,28€          |
| 3, 4, 5...   | 1.617,99€                   | 51.775,68€          |

Ondarea

Ohiko etxebizitzaz gain (garaje eta trastelekua barne), ezin da beste ondasun higiezinik eduki laguntza jasotzeko.

Zehaztapenak


- Familia unitatea osatzen duten kideen artean ezingo dituzte goian azaldutako diru sarrera kopuru horiek gainditu.
- Autonomoen kasuan, laguntza eskatu aurreko hileko diru-sarrerak kontabilizatuko dira, baita laguntza eskatzen den aldiko diru-sarrerak ere.
- Jasotzen diren eskaera eta kasu guztiak banan-banan aztertzen dira

324 FAMILIAK JASO ZUTEN UDALAREN LAGUNTZA 2020AN, OINARRIZKO BEHARREI ERANTZUTEKO

**Alokairua ordaintzeko, ohiko etxebizitzaren mantenu gastuei aurre egiteko, energia kontsumoaren gastuetarako edo oinarrizko premietarako bideratu dira laguntza gehien**

Herrian behar gehien dutenak babesteko asmoz, iaz oinarrizko beharretarako bideratutako aurrekontua handitu zuen iaz Azpeitiko udalak. Pandemiaren osasun krisiaren ondorioz sortutako krisi ekonomikoari erantzun asmoz “ahalegin berezia” egin zuen behar berriei erantzuteko asmoz. Horren isla, datu bat: iaz, gizarte larrialdietarako laguntzen eta

udal laguntzen bidez 500.000€tik gora bideratu zituen, herrian behar gehien duten familietara. Aurrekontutik %75a udalak jarri zuen, eta %25a Eusko Jaurlaritzak, gizarte larrialdietarako urtero bideratzen duen ohiko laguntzaren bidez. Guztira, laguntzen 675 eskari bideratu ziren eta 324 familiak jaso zituzten laguntza bat edo gehiago. Kontzeptu desberdinen baitan ematen dira laguntzak eta diru gehien etxebizitzaren alokairua ordaintzeko gastuetara bideratu da. Ohiko etxebizitzaren mantenu gastuak, energia gastuak eta oinarrizko premietara ere diru laguntzaren zati garrantzitsua zuzendu



|                       |         |
|-----------------------|---------|
| Alokairua             | 133.360 |
| Kreditua              | 40.882  |
| Energia               | 94.563  |
| Mantenua              | 118.146 |
| Altzariak             | 6.696   |
| Konponketak           | 9.121   |
| Lehen mailako premiak | 84.888  |
| Zorrak                | 5.402   |
| GUZTIRA               | 492.964 |



## ADINEKO PERTSONEN BEHARREI ERANTZUTEKO ETXE TUTELATUAK EGINGO DIRA

**Adineko pertsona autonomen-  
tzako zerbitzu eskaintza za-  
baltzeko eta zerbitzu integra-  
lagoa eskaintzera etorriko da  
elizkale 24,26 eta 28 etxeata-  
rietan egingo den azpiegitura.  
Zerbitzu eta zaintza bereziak  
jasoko dituzte bertan biziko  
direnek.**

Azpeitiko Udalak elizkaleko 24, 26 eta 28 etxeatarietan adineko pertsonentzat etxe tutelatuak egiteko erabakia hartu du. Etxe bizitza tutelatuak, gaur egun herrian adinekoei eskaintzen zaizkien zerbitzuak osatzera etorriko da. Hala, oraindik autonomo izanik beren egunerokoan laguntza edo tutela behar duten pertsonentzako zerbitzua izango da.

**“AUTONOMIA IZANIK BEREN  
EGUNEROKOAN LAGUNTZA  
BEHAR DUTEN PERTSONENTZAKO  
ETXEAK ERAIKIKO DIRA”**

Jakinekoea da gero eta urte gehiagoz bizi garela; gizartea gero eta zaharragoa da, orohar. Zahartze horretaz kezkatuta, eta horrek herrian sortuko dituen beharrez arduratuta, Azpeitiko Udalak urteak daramatza gai hori lehentasunezko hartuta. Bide horretan, adinekoen inguruan hainbat azterketa egin ditu azken urteotan. Adin tarte ezberdinetako herritarren artean egindako azterketetan etxebizitza tutelatu edo antzeko zerbitzuen beharra azpimarratu izan da, eta behar horri epe motzean erantzun asmoz, elizkalean alokairurako etxebizitzaren formulazioa aldatu eta alokairurako etxebizitza tutelatuak egingo dira.

Azpeitiko adinekoen azterketa prospektiboaren arabera, 2031kara bitartean, herritar zaharren eta oso zaharren kopurua gainontzeko adinetakoena baino gehiago igoko da. Horregatik, gaurtik gaiari heldu eta gaur egungo zerbitzuak aztertu eta etorkizunean beharko direnak gaurtik sortzen hasteko helburua du Udalak. Horretarako sinatu zuen Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiarekin ere hitzarmena, abenduan.

Gaur egun adineko bideratutako hainbat zerbitzu eskaintzen ditu Udalak. Etxez etxeko laguntza, eguneko zentroa edo adinekoen egoitza dira zerbitzu nagusiak. Zerbitzu horiek zabaltzera, eta adin tarte eta behar ezberdinei erantzun integrala emateko egingo dira.

“Mendekotasunik ez baina jarraipen edo laguntza behar duten pertsonentzako etxeak izango dira eraikiko direnak”, azpimarratu du Leire Goenaga Gizarte Zerbitzuetako batzordeburuak. Bertan bizi direnen eguneroko errutinen jarraipena eskaintzen da. Etxe tutelatuetan adinekoen egoitzara joateko perfila betetzen ez dutenek dute tokia: “Adinekoen beharrak oso

desberdinak dira beren osasunaren arabera. Zerbitzu berri horren bidez, bakarrik bizitzeko laguntza behar duten, baina oraindik ere beren kabuz bizitzeko moduan diren adinekoen arazoei aurre egin nahi diogu. Bizitza erabat autonomoa egin ezin duten, baina adinekoen egoitzara sartzeko menpekotasunik ez duten herritar horiengan pentsatutako zerbitzua izango da”, gaineratu du Goenagak.

### ERABILERA ANITZEKO ETXEBIZITZA

Gaixotasun larririk ez duten eta beren kabuz baliatu daitezkeen herritarrei zuzenduriko zerbitzua izango da, ohiko etxebizitzaren eta egoitzaren arteko baliabide gisa, pertsona nagusien bizi kalitatea hobetzeko eskaintza. Etxebizitzak eraikitzen ari diren bitartean udalak bertan eskainiko den zerbitzuaren inguruko hausnarketa egingo du eta bertan sartzeko bete beharreko baldintzak ere zehaztuko ditu. Baina ideia bat egite aldera, garbiketa-lanak, eguneroko otorduen prestaketa, arropa-garbiketa eta etxeko gainbegiratze pertsonala eskaintzen dira etxebizitza tutelatu bidez.

Eremu horretan etxebizitza tutelatuak egitea erabakita, obren finantzazioa ere lotua du dagoeneko udalak. Etxebizitzak eraikitzeko proiektua egina dago eta datozen hilabeteotan obrak lehiaketa publikora aterako ditu, dena ondo bidean. Hala, 2022an zehar etxebizitza tutelatuak adineko beteta izatea da asmoa.



ALOKAIRURAKO  
LAGUNTZAK: GAZTEEN  
EMANTZIPAZIOA  
LAGUNTZEKO BIDE

Azpeitiko Udalak, beste urte batez etxebizitzaren alokairurako dirulaguntza deialdia abian jarri du. 2013. urtetik abian den diru laguntzaren bidez, gazteen emantzipazioa bultzatzeaz gain, beste hainbat kolektiboren etxebizitza eskubidea bermatu nahi da.

Alokairurako laguntza Azpeitiko udalak azken urteotan etxe hutsetatik abiatutako etxebizitza politikaren lehen urratsa izan zen. Urtez urte laguntza egokitzen joan da premia eta behar berrietara, eta gaur egun hainbat kolektibotara zuzenduriko laguntza da. “Azpeitiko Udalaren azken urteetako ibilbidean

nabarmendu daiteke etxebizitza publikoen eskaintza zabal eta anitza egitea dela gure helburua. Etxebizitza politika berri eta progresiboaren lehen urratsa izan zen alokairurako laguntzena; orduetik, Esklabak-ltuzulo zein Alde Zaharreko etxebizitza babestuak jarri ditugu abian, eta Esklabetako alokairu sozialeko

etxebizitzan proiektua ere aurrera doa”, azaldu du Nagore Alkorta alkateak.

Aurten, herritar ugarik izan dezaketen egoera ekonomikoagatik garrantzitsua izan daiteke laguntza hau: “Bizi dugun egoerak herritar ugariren ekonomia kolpatu du. Horregatik, agian, orain arte alokairuan bizi laguntza jaso gabe gastuei aurre egiten zietenek edo egoera ekonomikoa okertu ostean baldintza betetzen dituztenek, laguntza jasotzeko eskubidea eta beharra izango dute. Horregatik jarri dugu abian urtea hasi berritan”, gaineratu du.

“AZPEITIKO UDALAREN  
ETXEBIZITZA POLITIKAREN  
BAITAN EMATEN DIRA ALOKAIRURAKO  
LAGUNTZAK. HORRETAZ GAIN, ORDEA  
ETXEBIZITZA BABESTUEN ESKAINTZA  
ZABALA ETA JARRAITUA  
ESKAINTZEA DU HELBURU”



Nori zuzendua

- 18 eta 35 urte (hau barne) bitarteko adina duten gazteak.
- Mugikortasun urria duten pertsonak (edozein adinetakoak) edo/eta ezgaitasun absolutoa dutenak.
- Bananduta edo dibortziatuta dauden pertsonak. Zaintza partekatu kasuetan, ohiko etxe bizitza ez-konkide ohiek dagozkien zaintza epealdietan erabiliko balute, eta gainontzean beste etxe bizitza bat alokatuko behar balute.
- 70 urtetik gorako pertsonak.
- Alargunak.

Emango den laguntza

- Alokairua ordaintzeko, gehienez, 250 euro emango ditu Udalak.
- Alde Zaharra Biziberritzeko prozesuaren baitan, gune horretan alokairuan bizitzen jartzen direnek 50 euro gehiagoko laguntza jasoko dute. Beraz, Alde Zaharrean etxea alokatuz gero, gehienez, 300 euroko laguntza izango dute.
- Alokairuaren errentak 550 euro baino gutxiagokoa izan behar du.
- Laguntza hamabi hilabetekoa izango da.

Diru-sarreraren arabera laguntzak

Dirulaguntzaren zenbatekoa, eskatzaileen diru-sarreraren arabera ezarritako atal sistema baten oinarritzen da, atal bakoitzari portzentai bat.

|                         |                   |
|-------------------------|-------------------|
| 0,00€ - 15.000,00€      | alokairuaren % 50 |
| 15.000,00€ - 21.000,00€ | alokairuaren % 40 |
| 21.000,00€ - 30.000,00€ | alokairuaren % 30 |
| 30.000,00€ - 35.000,00€ | alokairuaren % 20 |

Eskaerak aurkezteko epea

Urriaren 15a arte

*Eskatzaileentzat derrigorrezkoa da aurretik Eusko Jaurlaritzaren Gaztelagun programako laguntza-eskaera egina izatea.*



**Martxoak  
8**

Emakume  
Langileen  
Nazioarteko  
Eguna



*Zugatik, nigatik eta izango diren  
emakume guztiengatik*